# HEZKUNTZA PROGRAMA

# PROGRAMA DE MEDIACIÓN




2019 ↓ 2020

TABAKALERA

KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA

CENTRO INTERNACIONAL DE CULTURA CONTEMPORÁNEA

Donostia/San Sebastián

Hezkuntza-programa

2019

↓

2020

Programa de mediación

## GERTA DADILA EZUSTEKOREN BAT

Esku artean duzun hau Tabakalerak 2019/20 ikasturterako eskaintzen duena da, “gauzak gerta daitezen” gure eta eskoletatik, elkarteetatik, unibertsitateetatik edo edukietan sakondu nahi duten beste eragile batzuetatik datozen taldeen artean. Zalantzarik gabe, kultura garaikidearen eremua zabala da, eta hezkuntza-eskaintza honek horren berri ematen du; beraz, arretaz begiratzera gonbidatzen zaitugu, “elkarrekin zerbait egin” ahal izateko modu egokia bilatzeko. Gure lan-lerroak arte garaikidetik, zinematik eta herritarren laborategietatik abiatzen dira, eta hemen aurkezten dizkizugun programek modu askotan zeharkatzen dituzte lerro horiek. Ulertuta askotariko hezkuntza-erritmo eta -beharrak daudela, eta kultura osatzen duten dinamika guztien jakintza osoago bat lortzeko xedearekin, Tabakaleratik aldizkako harremanak, epe ertainekoak edo epe luzekoak sortzeko apustua egin dugu. Besteak beste, badira pentsamendurako eta hausnarketarako, praktika artistikorako eta esperimentaziorako guneak. Autoedizio-teknikak, kultura digitala edo performancea sakondu ditzakezu, Tabakalerako arte garaikideko erakusketak ezagutu eta horien edukiak landu, Ubik sorkuntza-liburutegia bizi edo 3Dko objektu bat inprimatzen ikasi.

2019an Tabakaleraren programa publikoa zeharkatzen duen *Arreta jartzea: gure burutan sartzeko lehia* programako gonbidatuetako batek adierazi zuen gatazka linguistikoki prestatzeko tokia dela bitartekaritza. Etengabe tentsioan dagoen lan bati egindako erreferentzia hori erabilgarria izan daiteke hainbat mailatan. Lantzen dugun eremu artistikoaren konplexutasunak berak dakar gure lana hitz gutxitan definitu eta laburtzeko zailtasuna. Horregatik, berriz errepikatzen dugu askotariko publikoak gonbidatzen ditugula artea, erakusketak, teknologia berriak, Ubik sorkuntza-liburutegia eta zinema erabiltzera askotariko hezkuntza-prozesuak martxan jartzeko. Interesa hemen dago: “gauzak gerta daitezen” aukera ematean, norabide askotarako prozesu eraldatzaileak sustatzeko. Gustatzen zaigu pentsatzea pertsona bat baino gehiago interpelatzen duten “gauzak gertatzen” direnean komunitatea deritzogun horren aukera aktibatzen dela. Alde horretatik, komunitatetzat hartzen badugu “zerbait komunean izatea”, ideia hori ezin da gatazkatik eta tentsiotik salbuetsi. Bitartekariok subjektibotasun, jakintza, instituzionalizazio-prozesu eta desiren bidegurutze honetan kokatzen gara, esateko zaila den hori guztia linguistikoki eta gorputzearen bidez lantzen saiatzen.

Praktika etengabe berrikusten ari den tokitzat hartuta, ziur gaude zuekin elkartzeak "gauzak gertatzea" ekarriko duela, guri ere eragingo digutenak, eta barnerago ere eraldatuko gaituztenak. Ikaskuntza hedatuaren ideiari eutsiz, pentsatu nahi dugu hezkuntza-prozesuak toki askotan geratzen direla, eta modu askotara; horregatik, Tabakalerak baldintzak sortu nahi ditu ezustekoren bat gerta dadin.



## QUE ALGO INESPERADO PASE

Lo que tienes entre manos es una compilación de lo que Tabakalera ofrece durante el curso escolar 2019/20 para que "sucedan cosas" entre nosotros/as y los grupos venidos de escuelas, asociaciones, universidades u otros agentes interesados en profundizar en los contenidos. Sin duda, el campo de la cultura contemporánea es amplio y esta oferta educativa da cuenta de ello, así que te invitamos a que la mires con detenimiento para encontrar la forma adecuada de poder "hacer algo juntos/as". Nuestras líneas de trabajo parten del arte contemporáneo, el cine y los laboratorios ciudadanos, y los programas que aquí te presentamos atraviesan esas líneas de forma muy diversa. Entendiendo que existen ritmos y necesidades educativas bien distintas y con el objetivo de adquirir un conocimiento más extenso de todas las dinámicas que conforman la cultura, desde Tabakalera os proponemos generar relaciones puntuales, de medio plazo o también de larga duración. Entre otros, existen espacios para el pensamiento y la reflexión, la práctica artística y la experimentación. Puedes profundizar en técnicas de autoedición, cultura digital o performance, conocer las exposiciones de arte contemporáneo de Tabakalera y trabajar sus contenidos, habitar la biblioteca de creación Ubik o aprender a imprimir un objeto en 3D.

Uno de los invitados al programa *Poner atención: la batalla por entrar en nuestras cabezas* que atraviesa el programa público de Tabakalera en este 2019, afirmaba entender la mediación como aquel lugar en el que elaborar lingüísticamente el conflicto. Esta referencia a un trabajo en permanente tensión puede ser útil a varios niveles. La propia complejidad del campo artístico en el que trabajamos hace que nuestra labor no pueda ser definida y resumida en pocas palabras. Por ello, insistimos en repetir que desde Tabakalera invitamos a los diversos públicos a utilizar el arte, las exposiciones, las nuevas tecnologías, la biblioteca de creación Ubik o el cine para poner en marcha procesos educativos de muy diversa índole. El interés reside en permitir que "sucedan cosas" que promuevan procesos transformadores en muy diversas direcciones. Nos gusta pensar que cuando "suceden cosas" que interpelan a más de una persona, se activa la posibilidad de eso que llamamos

comunidad. En ese sentido, si por comunidad entendemos “tener algo en común”, esta idea no estaría jamás exenta de conflicto y tensión. Es en esta encrucijada de subjetividades, saberes, procesos de institucionalización y deseos donde nos situamos las mediadoras, tratando de elaborar lingüística y corporalmente todo aquello que es difícil de decir.

Entendiendo la práctica como lugar en constante revisión, estamos seguros/as de que juntarnos con vosotros/as provocará que “sucedan cosas” que también nos afecten y transformen a un nivel quizá más interno. Agarrándonos a la idea de aprendizaje expandido, queremos pensar que los procesos educativos suceden en muchos lugares y de muchas formas, por ello, Tabakalera quiere posibilitar las condiciones para que algo inesperado pase.


EO-05

**LANTEGIAK**
**TALLERES 13**

Lantegia / Taller # **Arte Garaikidea / Arte Contemporáneo 14**
Belar onak eta txarrak / Buenas y malas hierbas 17 – Jakintzen laborategia / Laboratorio de saberes 19 – Bigarren ariketa / El segundo ejercicio 21

Lantegia / Taller # **Zinea eta ikusentzunezkoa Cine y Audiovisuales 22**
Zinemaraaaaa 25 Soinua / Sonido 26 – Ikus-entzunezkoa / Audiovisuales 27 Animazioa / Animación 27

Lantegia / Taller # **Sorkuntza-laborategiak Laboratorios de creación 28**
Performancea / Performance 32 – Autoedizioa / Autoedición 31 – Estanpazioa / Estampación 32 – Fabrikazio digitala / Fabricación digital 31 – Elektrizitatea, elektronika eta programazioa / Electricidad, electrónica y programación 33

**EPE-ERTAINEKOAK**
**MEDIO PLAZO 34**
Elkar-ekin 36
REC 38

**EPE-LUZEKOAK**
**LARGO PLAZO 40**
Eskola aldiriak / Periferias Escolares 42
Zinema (h)abian 44

**ESKOLA: IKERKETA, PENTSAMENDUA ETA GOGOETA**
**ESKOLA: INVESTIGACIÓN, PENSAMIENTO Y REFLEXIÓN 47**

# Programa / Programa

Belar onak eta txarrak / Buenas y malas hierbas
Jakintzen laborategia / Laboratorio de saberes
Bigarren ariketa / El segundo ejercicio
Zinemaraaaaa
Soinua / Sonido
Ikus-entzunezkoa / Audiovisuales
Animazioa / Animación
Performancea / Performance
Autoedizioa / Autoedición
Estanpazioa / Estampación
Fabrikazio digitala / Fabricación digital
Elektrizitatea, elektronika eta programazioa / Electricidad, electrónica y programación
Elkar-ekin
REC
Eskola aldiriak / Periferias escolares
Zinema (h)abian


2019
2020
I / S
U / O
A / N
A / D
U / E
O / F
M / M
A / A
M / M
E / J
U / J
A / A
I / S
U / O
A / N
A / D



# A

## Lantegiak

## Talleres



# A.1

Lantegia / Taller #

## Arte Garaikidea
## Arte contemporáneo

# Arte Garaikidea

Bada arteak duen “azaldu ezin” horren zerbait, harenganako arreta pizten diguna; erakusketa-areto batean sartzen gara pieza bat behin eta berriz ikustera, baduelako ihes egiten digun zerbait, harrapatu ezin dugun zerbait. Ikasturte honetan artearen eremura hurbilduko gara berriz, hainbat konturen gainean lan egiteko: jokoa, tradizioak, ahaztutako jakintzak, iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen artean gertatzen diren botere-harremanak, feminismoak eta ariketa, kirol- edo hezkuntza-testuingurutik harago. Saio dinamikoak dira, taldeen behar eta interesetara egokitzen direnak eta haien parte-hartze aktiboa bilatzen dutenak.

# Arte Contemporáneo

Hay algo de la “inexplicabilidad” del arte que atrapa nuestra atención hacia él; entramos a la sala de exposiciones a ver una pieza una y otra vez porque hay algo en ella que se nos escapa, algo que no podemos atrapar. Durante este curso escolar proponemos volver a acercarnos a ese intraducible que es el arte para trabajar en torno a temas como el juego, las tradiciones, los saberes que quedan olvidados, las relaciones de poder que se dan entre los países del norte y del sur, los feminismos o el ejercicio, entendido más allá del contexto deportivo o educativo. Son sesiones dinámicas en las que nos adecuamos a las necesidades e intereses de los grupos y buscamos la participación activa de los mismos.

A.1

Lantegia / Taller #

## Arte Garaikidea / Arte Contemporáneo

## A.1.1 — Belar onak eta txarrak
## Buenas y malas hierbas

## A.1.2 — Jakintzen laborategia
## Laboratorio de saberes

## A.1.3 — Bigarren ariketa
## El segundo ejercicio

Noiz — Fechas

**As.** Asteartea / Martes → **Or.** Ostirala / Viernes

**I** 2019 Iraila / Septiembre → **E** 2020 Ekaina / Junio

Pertsona kopurua — Nº personas

**25** Taldea / Grupo

(**Gehienez 2 talde aldi berean**
Máximo 2 grupos simultaneamente.)

Ordutegia — Horario

**10:00** → **14:00**

**16:00** → **18:00**

Iraupena — Duración

**2h.** Gehienez / Máximo

Norentzat — Dirigido a

***Ikastetxeak eta elkarteak*** (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, LH, unibertsitatea)

***Asociaciones y Centros escolares*** (Primaria, Secundaria, Bachillerato, FP, universidad)

Izen-ematea — Inscripción

***hezkuntza@tabakalera.eu***
Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi edo adin-tarte batzuk edo talde handiagoak interesatzen baldin bazaizkizue, galdetu — Inscripciones mínimo con dos semanas de antelación. Consultar en caso de interés en otros horarios, edades o grupos grandes.

Erakusketa — Exposición

### 2019ko ekaina - urria

*Uriel Urlow /Jumana Manna*

Bi artisten lanetan oso presente daude diskurtso historiografiko eta politikoak, gertakari historiko, sozial eta kulturalen gainean pentsatzeko. Horrez gain, honetan ere egiten dute bat: politikarekin lotutako kontzeptuak birplanteatzen dituzte, kolonialismoa, kultura-trukea, boterea eta horrelako gaiak lantzeko. Uriel Orlowk batez ere ikus-entzunezkoetan egiten du lan, baina baita argazkilaritzan eta instalazioan ere; Juamana Mannak, aldiz, eskultore eta zinemagiletzat du bere burua.

### Junio - octubre 2019

*Uriel Urlow /Jumana Manna*

En ambos artistas están muy presentes los discursos historiográficos y geopolíticos para pensar sobre diferentes acontecimientos históricos, sociales y culturales. Coinciden también en que replantean conceptos ligados a la política para tratar temas como el colonialismo, el intercambio cultural y el poder. Uriel Orlow trabaja sobre todo en el medio audiovisual, pero también la fotografía y la instalación; Jumana Manna, en cambio, se define como escultora y cineasta.

Lantegia — Taller

### A.1.1 – **Belar onak eta txarrak**

Gure inguruko landareei eta haziei buruzko ikerketa- eta sorkuntza-lantegia. Tabakaleratik aterako gara, hainbat lagin jasotzeko, eta haien ezaugarriak eta propietateak herbario pertsonalizatuetan erregistratzeko, hainbat teknika artistikoren bidez. Jakintza ahaztuen gainean jardungo gara, eta horrela sakonduko dugu erakusketen edukietan.

### A.1.1 – **Buenas y malas hierbas**

Taller de investigación y creación en torno a las plantas y semillas de nuestro contexto. Salimos de Tabakalera para recoger diferentes muestras y registrar sus características y propiedades en herbolarios personalizados a partir de diferentes técnicas artísticas. Indagamos en torno a los conocimientos olvidados y profundizamos de esta manera en los contenidos de las exposiciones.

## 2019ko azaroa - 2020ko otsaila
## *The Case Against Efficiency*
## Madrassa kolektiboa

Madrassa kolektiboa gehienbat Afrikatik eta Ekialde Hurbiletik datozen 8 kidek osatzen dute, eta erakusketak antolatzea ikerketa-jarduera eta jarduera kritikotzat ulertzen dute. 2018an Tabakaleran egindako egonaldi batetik abiatuta, *The Case Against Efficiency* sortu zuten; bertan, kolektiboari eta ekoizpen-eredu alternatiboak bilatzeari buruzko ideiak azaleratzen dira, kultura, nekazaritza, hezkuntza eta bestelako esparruetan. Erakusketa efizientziaren ideia gailena zalantzan jartzen duen eta praktika artistiko kolektiboen defentsa egiten duen ikuspegi batetik planteatzen da, eta ekoizpenari buruzko beste begirada batzuk ematen dizkigu.

## Noviembre 2019 - febrero 2020
## *The Case Against Efficiency*
## Colectivo Madrassa

El colectivo Madrassa, compuesto por ocho miembros procedentes en su mayoría de África y Oriente Medio, concibe la organización de exposiciones como una actividad investigadora y crítica. A partir de una residencia realizada durante el 2018 en Tabakalera surge *The Case Against Efficiency*, donde emergen ideas sobre lo colectivo, la búsqueda de modelos alternativos de producción en ámbitos como la cultura, la agricultura o la educación. La exposición se plantea desde una perspectiva que cuestiona la idea de eficiencia dominante y una defensa de las prácticas artísticas colectivas como entidades que nos proporcionan otras miradas sobre la producción.

## *Kotoizko algoritmoa*
## Filipa César

Filipa César artista eta zinemagileak 2011tik egin du lan Ginea Bissauko Afrikako askapen mugimenduaren barruko zinemaren jatorrien gainean, zinema dokumentalaren, instalazioaren edo kolaborazio-estetiken metodologiak erabiliz. Haren lanak prozesu geopolitiko horietarako hurbilketa sentikor bat proposatzen du, eta lan horretan Portugal, bere jatorri-herrialdea, inplikatuta dago. Artistarentzat, orainalditik kanporatu diren horien historia nola idatzi galdera planteatzeko moduak bilatzea da kontua. Erakusketak haren azken proiektua hartuko du ardatz: *Loom Creole*.

## *Algoritmo de algodón*
## Filipa César

La artista y cineasta Filipa César ha trabajado desde 2011 sobre los orígenes del cine dentro del movimiento de liberación africana en Guinea-Bissau siguiendo metodologías provenientes del cine documental, la instalación o las estéticas de la colaboración. Su trabajo proporciona un acercamiento sensible a estos procesos geopolíticos en los que Portugal, su país de origen, se encuentra implicado. Para la artista se trata de buscar formas para abrir la pregunta sobre cómo escribir la historia de aquellos que han sido expulsados del presente. La exposición tomará como eje central su último proyecto: *Loom Creole*.

## A.1.2 – **Jakintzen laborategia**

Badaude antzinako zenbait jakintza eta ezagutza, kolektiboki sortu direnak eta denboran iraun dutenak ahozko tradizioen eta kultura-transmisioko beste modu batzuen bidez. Laborategi honetan, ezaguera mota horietatik abiatuko gara: errezetak, sendabelarrak, familia-kontakizunak… kolektiboki sortzeko artxibo bizi bat, haziz doana talde bakoitzaren bisitaren ondoren, gure ezaguera eta memoria partekatuen isla.

## A.1.2 – **Laboratorio de saberes**

Hay ciertos saberes y conocimientos ancestrales que han sido creados colectivamente y perduran en el tiempo por medio de tradiciones orales u otras formas de transmisión cultural. En este laboratorio partimos de este tipo de conocimientos: recetas, hierbas medicinales, relatos familiares… para crear colectivamente un archivo vivo que vaya creciendo tras la visita de cada grupo como reflejo de nuestro conocimiento y memorias compartidas.

## 2020ko martxoa-ekaina
## *Pobrearen zibernetika: tutorialak, partiturak eta ariketak*

Erakusketa-proiektu hau zibernetikaren gaineko begirada kritiko batetik abiatzen da, eta *Ariketak: la segunda respiración* bi urteko proiektuaren testuinguruan izenburu berarekin egindako mintegi batekin hasi zen. Ekoizpen artistiko berrietatik, obra historikoetatik eta artxiboetatik abiatuta, erakusketak erregulatzen, gobernatzen eta planifikatzen gaituzten sistema eta egituretan pentsarazten digu, gure begiradak aurreratuz eta gure arreta gidatuz. Diedrich Diederichsen erakusketako komisarioetako batek iradokitzen duenez, artistek duten baliabideen makineria erraldoi horren aurrean, zibernetika hori pobretzat jo daiteke, irudimena, zehaztasuna eta amaierarik gabeko ariketa erabiltzetik abiatuta funtzionatzen duen jendearen zibernetika da.

Artista parte-hartzaileak: Jon Mikel Euba, Agency, Camila Sposati eta Lili Reynaud Dewar.

## Marzo - Junio 2020
## *Cibernética del pobre: tutoriales, partituras y ejercicios*

Este proyecto expositivo parte de una mirada crítica sobre la cibernética y es parte de una investigación que se inicia con un seminario que tuvo lugar bajo el mismo título en el contexto del proyecto bianual *Ariketak: la segunda respiración*. A partir de nuevas producciones artísticas, obras históricas y archivos, la exposición nos invita a pensar en los sistemas y las estructuras que nos regulan, nos gobiernan y planifican, adelantando nuestras miradas y dirigiendo nuestra atención. Como sugiere Diedrich Diederichsen, uno de los comisarios de la muestra, frente a esta gigantesca maquinaria los recursos con los que cuentan los y las artistas se pueden considerar como una cibernética más bien pobre, una cibernética de la gente que funciona a partir del uso de la imaginación, de lo concreto y del ejercicio sin fin.

Artistas participantes: Jon Mikel Euba, Agency, Camila Sposati y Lili Reynaud Dewar.

## A.1.3 – **Bigarren ariketa**

Hurrenez hurren arnasa hartzea eta botatzea da planteatzen den ariketa, erakusketako Praktika Artistikoen Taula hasteko. Gimnasia horren bidez, erakusketaren diskurtsoan sartuko gara, hainbat piezatan zehar ibiltzeko, gure errealitateei eta egiturei begiratzeko, haien bidez ertz berri batetik antolatzeko. Lantegia hausnarketa-prozesu bat da, ariketaren ideiaren gainekoa, eskola- edo kirol-testuingurutik kanpo, zeinekin egunerokoan lotzen baitugu.

## A.1.3 – **El segundo ejercicio**

Respirar y expirar sucesivamente es el primer ejercicio que se plantea para dar comienzo a la Tabla de Prácticas Artísticas de la exposición. Mediante esta gimnasia nos introducimos en el discurso expositivo con el objetivo de caminar a través de las diferentes piezas para mirar a nuestras realidades y a las estructuras a través de las que nos organizamos desde un ángulo nuevo. El taller es un proceso de reflexión en torno a la idea del ejercicio más allá del contexto escolar o deportivo con el que cotidianamente la relacionamos.



# A.2

Lantegia / Taller #

## Zinea eta ikus-entzunezkoa
## Cine y audiovisuales

# Zinea eta ikus-entzunezkoa

Film bat ikustea zinema-aretoan, eta guztien artean partekatzea sortzen dizkigun zirrarak, kritikoki pentsatzea ikus-entzunezkoen gainean, edo martxan jartzea gure sormena, mugimenduan dauden irudi-teknikak ikasiz. Soinuan zentratzea, “stop motion” animazioan, edo grabazio-plato baten funtzionamendua ezagutzea. Zinema mundua ulertzeko eta ikus-entzunezkoen bidez narratiba ofizialak hausteko aukeratzat pentsatzea.

# Cine y Audiovisuales

Ver una película en la sala de cine y compartir entre todos/as las impresiones que nos genera, pensar críticamente sobre el audiovisual, o poner en marcha nuestra creatividad aprendiendo diferentes técnicas de imagen en movimiento. Centrarnos en el sonido, en la animación “stop motion” o conocer el funcionamiento de un plató de grabación. Seguir pensando el cine como posibilidad para entender el mundo y romper con las narrativas oficiales a través del audiovisual.

A.2

Lantegia / Taller #

## Zinea eta ikus-entzunezkoa / Cine y audiovisuales

### A.2.1 — Zinemaraaaaa
### A.2.2 — Soinua / Sonido
### A.2.3 — Ikus-entzunezkoa / Audiovisuales
### A.2.4 — Animazioa / Animación

Noiz — Fechas

**As.** Asteartea Martes

**I** 2019 Iraila Septiembre

↓

**Or.** Ostirala Viernes

**E** 2020 Ekaina Junio

Pertsona kopurua — Nº personas

**15** Taldea Grupo

(**Zinemaraaaaa lantegiaren kasuan, galdetu.**

En el caso de Zinemaraaaaa , consultar)

Ordutegia — Horario

**10:00**

↓

**14:00**

Iraupena — Duración

**2h.** Gehienez Máximo

Norentzat — Dirigido a

*Ikastetxeak eta elkarteak*

**#Zinemaraaaaa:** Lehen Hezkuntzako 2. zikloa eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak. / Aurrez saio bat egongo da irakasleekin urriaren 29an 10:00etatik 13:00etara.

**#Soinua, ikus-entzunezkoak eta animazioa:** Lehen Hezkuntzako 2. zikloa, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, elkarteak eta unibertsitateko ikasleak.

*Centros escolares y asociaciones*

**#Zinemaraaaaa:** 2º ciclo de Primaria y 1º y 2º de Secundaria. / Habrá una sesión previa con el profesorado el 29 de octubre de 10.00 a 13.00.

**#Sonido, audiovisuales y animación:** 2º ciclo de Primaria, Secundaria, Bachillerato, Asociaciones y grupos universitarios.

Izen-ematea — Inscripción

***hezkuntza@tabakalera.eu***

Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi edo adin-tarte batzuk edo talde handiagoak interesatzen baldin bazaizkizue, galdetu — Inscripciones mínimo con dos semanas de antelación. Consultar en caso de interés en otros horarios, edades o grupos grandes.

## 2019 Urria 29
## A.2.1 – **Zinemaraaaaa**

Tabakaleran sartu gara, eskailera nagusiaren ondotik pasatu gara, eta zinema-aretoan argiak itzali dira. Film bat pasatu da, eta atentzioa eman diguten gauza asko daude. Galderak egiten dizkiogu geure buruari, ikasgelan ere landu ditugu aurrez.

Urrian, lan-saio bat egingo dugu. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako taldeen irakasleak gonbidatuko ditugu, ikasleekin landu nahi dituzten ikus-entzunezko edukiak diseinatzera. Horrela, filmen hautapen bateratu bat egingo da, curriculum-edukietan, ikasleen interesean eta ikuspegi zinematografikoan oinarrituta. Filma ikasgelan lantzen da aurretik, eta Tabakalerako zinema-aretoak ikusi.

Irakasleekin egingo den saioa **urriaren 29an izango da, 10:00etatik 13:00etara, Tabakaleran, gehienez ere 15 pertsonarentzat (aldez aurretik izena emanda www.tabakalera.eu webgunean).**

## 29 octubre 2019
## A.2.1 – **Zinemaraaaaa**

Entramos en Tabakalera, pasamos junto a la escalera principal y en la sala de cine se apagan las luces. Se pasa una película y muchas cosas en ella nos llaman la atención. Nos hacemos preguntas, las trabajamos en clase.

En octubre celebramos una sesión de trabajo a la que invitamos a profesoras/es de grupos escolares de primaria y secundaria a diseñar los contenidos audiovisuales que se quieren trabajar con el alumnado. Así, se realiza una selección conjunta de películas en base a contenidos curriculares, interés del alumnado y enfoque cinematográfico. El filme se trabaja previamente en el aula y se visiona en la sala de cine de Tabakalera.

La sesión con el profesorado tendrá lugar **el 29 de octubre de 10:00 a 13:00 en Tabakalera para un máximo de 15 personas (previa inscripción en www.tabakalera.eu).**

## A.2.2 – **Soinua**

Hirian zabiltza paseoan, bideo bat ikusten edo zineman. Probatu duzu inoiz begiak ixtea eta ikusten duzunean ez baizik entzuten duzunean arreta jartzea? Irudiek rol garrantzitsua dute egun, baina ez dugu antzematen soinuak haietan duen pisua. Zer entzuten dugu isilik gaudenean? Soinuak etengabe daude gurekin; batzuk atseginak dira eta besteak desatseginak. Beste batzuk ez ditugu entzun ere egiten. Lantegi honetan, entzute aktiboan zentratuko gara eta soinu-esperimentaziorako aukerak esploratuko ditugu.

## A.2.2 – **Sonido**

Estás paseando por la ciudad, viendo un vídeo o en el cine. ¿Has probado alguna vez a cerrar los ojos y no fijarte en lo que ves sino en lo que oyes? Las imágenes juegan un rol clave hoy en día, pero no percibimos el peso que el sonido tiene sobre ellas. ¿Qué escuchamos cuando estamos en silencio? Los sonidos nos acompañan constantemente, algunos nos resultan agradables y otros desagradables; algunos ni siquiera los oímos. En este taller nos centramos en la escucha activa y exploramos posibilidades para la experimentación sonora.

## A.2.3 – **Ikus-entzunezkoa**

Mugimenduzko irudiak inguratu egiten gaitu etengabe, gurekin dago kalean, etxeetan, garraiobide publikoetan, telefonoetan. Oldea gorabehera, gutxitan aurkitzen dugu ohiko narratibak hausten dituen eta munduaren begirada apurtzaile bat planteatzen duen ikus-entzunezkorik. Nola sortu beste irudikapen batzuk? Lantegi honetan, grabatzeko eta editatzeko gailuak erabiltzen ikasten dugu, “kroma” esaterako, bideokamerak eta edizio-ekipoak; uste dugu ikus-entzunezko eredu hegemonikoei alternatibak sortzeko bitartekoak izan daitezkeela.

## A.2.3 – **Audiovisuales**

La imagen en movimiento nos rodea constantemente, nos acompaña por las calles, en las casas, en los transportes públicos, en los teléfonos. A pesar de la avalancha, rara vez encontramos un audiovisual que rompa con las narrativas convencionales y proponga una mirada transgresora del mundo. ¿Cómo generar otro tipo de representaciones? En este taller aprendemos a utilizar dispositivos de grabación y edición como el “croma”, las cámaras de vídeo y los equipos de edición, entendiendo que pueden ser medios para generar alternativas a las formas audiovisuales hegemónicas.

Lantegia — Taller

### A.2.3 – **Animazioa**

"Stop motion" ikus-entzunezko teknika irudiak mugimenduan sortzeko animazio-barietate zaharrenetako bat da. Lantegi honetan, teknika tradizionalean sakontzen da, eta sortzeko aukerak arakatzen dira. Edozein materialek balio du istorioak sortzeko: gure gorputzak, plastilinak, objektuek, marrazkiek edo argazkiek, besteak beste.

### A.2.2 – **Animación**

La técnica audiovisual "stop motion" es una de las variedades de la animación más antiguas para crear imágenes en movimiento. En este taller se profundiza en la tradicional técnica y se exploran sus posibilidades para la creación. Cualquier material sirve para crear historias: nuestros cuerpos, la plastilina, los objetos, el dibujo o la fotografía, entre muchos otros.



# A.3

Lantegia / Taller #

## Sorkuntza-laborategiak
## Laboratorios de creación

# Sorkuntza-laborategiak

Tabakalerako lan-filosofiaren oinarrian kultura esperimentazio- eta sorkuntza-laborategi gisa ulertzea dago; bertan, ezinbesteko dira “egizu zuk zeuk”, “egizu besteekin” edo “hacker etika” leloak, besteak beste. Esaterako, kodea bere zentzurik zabalenean zabaltzea, eta teknikaren edo pentsamenduaren nozioak birpentsatzea gure programen oinarrian dago. Hemen deskribatutako jardueretan Tabakalerako instalazio, baliabide eta lan-filosofietarako gerturapen bat proposatzen da, kultura egitetik gertuago egoteko. Taldeen denborei, edukiei eta interesei egokituko gatzaizkie, esate baterako, egin daitezkeen jardueren zerrendari pentsamendu-lantegiak eta eztabaidak gehituz.

# Laboratorios de creación

La filosofía de trabajo en Tabakalera pasa por entender la cultura como un laboratorio de experimentación y creación, donde lemas como el “hazlo tu misma”, “hazlo con otras” o “ética hacker” se tornan fundamentales. Abrir el código en su sentido más amplio y repensar nociones como técnica o pensamiento se sitúan en las bases de nuestros programas. En las actividades aquí descritas proponemos un acercamiento a las instalaciones, recursos y filosofías de trabajo de Tabakalera, con el objetivo de situarnos más cerca del hacer en cultura. Nos adaptamos a los tiempos, contenidos e intereses de los grupos añadiendo temas como talleres de pensamiento y debate a la lista de posibilidades.

A.3

Lantegia / Taller #

## Sorkuntza-laborategiak / Laboratorios de creación

# A.3.1 — Performancea / Performance
# A.3.2 — Autoedizioa / Autoedición
# A.3.3 — Estanpazioa / Estampación
# A.3.4 — Fabrikazio digitala / Fabricación digital
# A.3.5 — Elektrizitatea, elektronika eta programazioa / Electricidad, electrónica y programación

Noiz — Fechas

As. 2019 I
Asteartea / Martes — Iraila / Septiembre
↓
Or. 2020 E
Ostirala / Viernes — Ekaina / Junio

Pertsona kopurua — Nº de personas

15-25

Ordutegia — Horario

10:00 ↓ 14:00

Iraupena — Duración

2h.
Gehienez
Máximo

Norentzat — Dirigido a

***Ikastetxeak eta elkarteak***
**#Performancea, Autoedizioa eta Fabrikazio digitala:** Lehen Hezkuntzako 2. zikloa, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, elkarteak eta unibertsitateko ikasleak.
**#Estanpazioa eta Elektrizitatea-elektronika-programazioa:** Lehen Hezkuntzako 2. zikloa, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, elkarteak eta unibertsitateko ikasleak.

***Centros escolares y asociaciones***
**#Performance, Autoedición y Fabricación digital:** 2º ciclo de Primaria, Secundaria, Bachillerato, asociaciones y grupos universitarios.
**#Estampación y Electricidad-electrónica-programación:** Primaria, Secundaria, Bachillerato, asociaciones y grupos universitarios.

Izen-ematea — Inscripción

***hezkuntza@tabakalera.eu***
Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi edo adin-tarte batzuk edo talde handiagoak interesatzen baldin bazaizkizue, galdetu — Inscripciones mínimo con dos semanas de antelación. Consultar en caso de interés en otros horarios, edades o grupos grandes.

### A.3.1 – **Performancea**

Performancea ekintzan oinarritutako praktika artistikoa da: ikusia izateko pentsatua dago, eta toki jakin batean eta iraupen jakin batekin egiten da. Lantegi honetan gorputzei lotutako praktika feministen metodologiak hartuko ditugu abiapuntutzat, eta fokua zaintzetan eta espazio kolektibo seguru baten bilaketan jarriko dugu. Normalean negatibotzat jotzen ditugun aniztasun eta bereizgarritasunak identifikatzen ditugu, gerora horiei guztiei gorputzetan esanahi berri bat emateko.

Lantegia — Taller

### A.3.1 – **Performance**

La performance es una práctica artística basada en la acción: está pensada para ser vista, ocurre en un lugar concreto y durante un tiempo específico. En este taller partimos de metodologías de las prácticas feministas vinculadas a los cuerpos, poniendo el foco en los cuidados y en la búsqueda de un espacio colectivo seguro. Identificamos las diversidades y singularidades que normalmente leemos como negativas, para resignificarlas desde los cuerpos.

### A.3.2 – **Autoedizioa**

Autoedizioa liburu, aldizkari, fanzine edo bestelakoak inongo editorialen esku-hartzerik gabe argitaratzean datza. Lantegi honetan autoeditatutako fanzine bat sortzea proposatzen dugu. Horretarako, Ubik sorkuntza-liburutegian eskuragarri dauden beste egile batzuen materialak hartuko ditugu erreferentziatzat. Guk geuk edo kolektiboak sortutako euskarriak editatzeko teknikak eta baliabideak ezagutuko ditugu.

Lantegia — Taller

### A.3.2 – **Autoedición**

La autoedición consiste en la publicación de un libro, revista, fanzine... sin la intervención de una editorial. En este taller proponemos crear un fanzine autoeditado tomando como referencia las creaciones de autores/as cuyos materiales se encuentran disponibles en la biblioteca de creación Ubik. Nos aproximamos a diferentes técnicas y recursos para la edición de soportes creados por nosotros/as mismos/as o por el colectivo.

## A.3.3 — **Estanpazioa**

Estanpazioa tradizionalki kartelak edo jantziak sortzeko erabilitako teknika bat da, eta egungo teknologiek prozesu mota horiek eskaintzen dituzten aukerak zabaldu dituzte. Biniloaren, xilografiaren eta serigrafiaren bitartez, lantegi honek askotariko materialak erabiltzeko aukera eskaintzen du, artisau-prozesuak prozesu industrialekin konbinatuz.

Lantegia — Taller

## A.3.3 — **Estampación**

La estampación es una técnica artesanal empleada tradicionalmente para la creación de carteles o prendas de vestir, y las tecnologías actuales han ampliado las posibilidades dentro de este tipo de procesos. Utilizando el vinilo, la xilografía o la serigrafía, y combinando los procesos artesanales con otros más industriales, este taller propone intervenir sobre diferentes materiales.

## A.3.4 — **Fabrikazio digitala**

Lantegia — Taller

Azken aurrerapen teknologikoak ezinbestean ari dira gure gizarteko esparru asko aldatzen. Besteak beste, puri-purian dago teknologia berriak hezkuntza-esparruan erabiltzea –3D inprimagailua, laser bidezko mozketak–. Garrantzitsua da teknologia horien funtzionamendua ondo ezagutzea berauek kritikoki aztertzeko eta beharrizan jakinei erantzungo dieten proiektuak sortzeko. **3Dko lantegian** sakondu egiten da oinarrizko funtzionamenduan eta 3Dko inprimatze-prozesuetan, diseinu-fasetik hasi eta objektuak produzitu arte. Gainera, normalean ezagutarazten ez diren proiektu alternatiboen berri ere emango dugu, gugandik oso gertukoak.

Fase aurreratuago batean, aukera dago **Fabrikazio digitala** izeneko lantegia egiteko. Prozesu horren bitartez, erreal bihurtzen dira ordenagailuz diseinatutako objektuak. Hartara, 3Dko inprimagailuak edo laser bidezko ebakigailuak erabiltzen dira, besteak beste. Lantegi horretan 2Dko eta 3Dko diseinuak egitea ahalbidetzen duten programa informatikoak ezagutuko ditugu, zeinak beranduago arkitektura-elementu, apaingarri, jostailu edo bestelako objektu bihur daitezkeen.

## A.3.4 — **Fabricación digital**

Los últimos avances tecnológicos están inevitablemente transformando muchos de los ámbitos de nuestra sociedad. La incorporación de nuevas tecnologías digitales al ámbito educativo –impresoras 3D, corte láser– está a la orden del día. Es importante conocer el funcionamiento de estas para poder pensarlas críticamente e idear proyectos que den respuesta a necesidades concretas. En el **Taller de 3D** se profundiza en el funcionamiento básico y los procesos de impresión 3D, desde su fase de diseño hasta la producción de los objetos. Además, se conocen ejemplos de proyectos alternativos a los que se suelen dar a conocer y que han sido llevados a cabo en nuestro entorno más cercano.

En una fase más avanzada, existe la posibilidad de realizar el taller de **Fabricación digital**, un proceso por el cual se hacen reales los objetos diseñados por ordenador empleando máquinas como impresoras 3D o cortadoras láser. Se propone conocer los programas informáticos de realización de diseño 2D y 3D que posteriormente se pueden convertir en arquitectura, decoración, juguetería u otros objetos.



## A.3.5 – **Elektrizitatea, elektronika eta programazioa**

Lantegi multzo honetan berrikusi egiten dira elektrizitatearen eta eroankortasunaren oinarrizko kontzeptuak, baita robotika, programazioa eta elektronika ere. Horien guztien funtzionamenduaren oinarriak ezagutuko ditugu, eta zirkuitu elektrikoak sortuko ditugu elementu elektronikoen bitartez. Halaber, jolasak eta eskuzko proiektuak baliatuko ditugu hizkuntza konputazionalera gerturatzeko, horixe baita programazioaren hizkuntzaren oinarria. Hori guztia egiteko, besteak beste, Arduino eta Scratch software eta hardware askeko tresnak erabiliko ditugu.

## A.3.5 – **Electricidad, electrónica y programación**

En este grupo de talleres se revisan los conceptos básicos de la electricidad y conductividad, la robótica, la programación y la electrónica. Se conocen las bases de su funcionamiento y a través de elementos electrónicos se crean circuitos eléctricos. Asimismo, por medio de juegos y proyectos manuales nos acercamos al lenguaje computacional, que es la base del lenguaje de la programación. Todo ello partiendo de la utilización herramientas de software y hardware libre como Arduino o Scratch.



# B

## Epe-ertainekoak

## Medio plazo

## Epe-ertainekoak

Epe ertaineko programek printzipioz inongo loturarik ez dutela diruditen errealitateak uztartzeko engranaje gisa funtzionatzen dute; izan ere, batera abiaraz ditzakete proiektuak ikasgelek, unibertsitateek edo elkarteen espazioek eta arte-produkziora bideratutako zentroek, horrela topagune berriak sortzeko. Mota horretako gurutzaketek aberastu egiten dituzte prozesu hezitzaileak hainbat norabidetan, denbora gehiago ematen delako lanean, eta ondorioz, handitu egiten direlako negoziatzeko eta eztabaidatzeko aukerak ere. Lan egiteko moduek elkar kutsatzen dute, eta horri esker, posible da erakunde bakoitzak bere mugak gainditzea.

## Medio plazo

Los programas de medio plazo funcionan como engranajes para vincular realidades aparentemente des-conexas: las aulas, las universidades o los espacios asociativos y los centros de producción artística pueden emprender proyectos conjuntos y así crear nuevos puntos de encuentro. Este tipo de cruces enriquecen los procesos educativos en varias direcciones, ya que los tiempos de trabajo se alargan y se activan posibilidades de negociación y diálogo. Las formas de trabajo se contagian entre unas y otras y así se permite que cada institución pueda traspasar sus propios límites.

B.1

Lantegia / Taller #

## Epe-ertainekoak / Medio plazo

# Elkar-ekin

Noiz — Fechas

I 2019 Iraila Septiembre → M 2020 Maiatza Mayo

Pertsona kopurua — Nº de personas

25 Taldea Grupo

Gehienez Máximo

Ordutegia — Horario

10:00 → 14:00

Iraupena — Duración

2h. Gehienez Máximo

Saio kopurua — Número de sesiones

2

**Bilera (prestakuntzakoa eta ko-ebaluaketakoa)** / Reuniones (preparativa y de co-evaluación)

3

**Saio taldearekin** / Sesiones con el grupo

Norentzat — Dirigido a

***Ikastetxeak eta elkarteak*** (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, LH, helduentzako hezkuntza, unibertsitatea)

***Centros escolares y asociaciones*** (Primaria, Secundaria, Bachillerato, FP, Educación para adultos, universidad)

Izen-ematea — Inscripción

***hezkuntza@tabakalera.eu***

(Izena emateko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik. Plazo abierto hasta el 31 de octubre)

## Elkar-Ekin

Elkar-ekin programaren xedea talde parte-hartzaileen arduradunekin batera sekuentzia pedagokiko bat diseinatzean datza. Ustez elkarrekiko loturarik ez duten jakintzak uztartzen dituzte proiektu hauek, ikaskidetza sustatzeko, ikasketa prozesuak aberasteko eta konpetentzien garapenean lagungarri izateko helburuarekin. Parte hartzen duten taldeen interesak eta Tabakaleraren izaera kontuan izanda, bi aldeen lana lotzea bilatzen da arte garaikidea, zinea, teknologia, autoedizioa edo pentsamenduaren bitartez. Zehazki, 3 eta 6 saio arteko proiektua elkarrekin diseinatzea da kontua, saio horiek Tabakalerako guneetara (sorkuntza-liburutegia, kultura digitaleko laborategiak, sortzaileen guneak...) eta talde bakoitzaren beharretara egokituta.

## Elkar-Ekin

Elkar-ekin consiste en diseñar una secuencia pedagógica junto con la/s persona/s responsables de cada grupo. Los proyectos tratan de vincular realidades y saberes dispares para favorecer el co-aprendizaje, enriquecer los procesos educativos y contribuir al desarrollo de las competencias. Teniendo en cuenta los intereses del grupo participante y la especificidad de Tabakalera, se conecta el trabajo de ambas partes a través del arte contemporáneo, el cine, la tecnología, la autoedición o el pensamiento. A efectos prácticos, se trata de co-diseñar un proyecto de entre 3 y 6 sesiones de trabajo adaptados a los distintos espacios de Tabakalera (la biblioteca de creación, los laboratorios de cultura digital, los espacios de las/os creadoras/es...) y a las necesidades de cada grupo.

B.2

Lantegia / Taller #
## Epe-ertainekoak / Medio plazo

# REC

Noiz — Fechas

A 2019 Azaroa Noviembre → M 2020 Maiatza Mayo

Pertsona kopurua — Nº de personas

25 Taldea Grupo

Gehienez Máximo

Ordutegia — Horario

10:00 → 14:00

16:00 → 18:00

Iraupena — Duración

2h.

Saio kopurua — Número de sesiones

7

**Saio taldearekin eta 2 bilera taldeko arduradunarekin (prestakuntza eta ebaluazioa)** / Sesiones con el grupo y 2 reuniones con la persona responsable del grupo (formación y evaluación)

2

**Bilera taldeko arduradunarekin (prestakuntza eta ebaluazioa)** / Reuniones con la persona responsable del grupo (formación y evaluación)

Tokia — Lugar

**Saioak ikastetxeetan / elkarteetan eta Tabakaleran izango dira.** Las sesiones tendrán lugar en las escuelas / asociaciones y en Tabakalera.

Norentzat — Dirigido a

***Ikastetxeak eta elkarteak*** (Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa)

***Centros escolares y asociaciones*** (3º y 4º de Secundaria, Bachillerato y Formación Profesional)

Izen-ematea — Inscripción

***hezkuntza@tabakalera.eu***

## REC

Zinema esperimentala abiapuntu duen 7 saioko lantegi teoriko-praktikoa da REC. Lantegi honek narratiba unibertsaletatik urruntzea eta nork bere burua irudikatzeko eta ikusgarri egiteko beste modu batzuk irudikatzea proposatzen du. Auto-errepresentazioaren formatuan egingo dugu lan. Ikus-entzunezko formatu horretan, besteak beste, arraza, generoa eta identitate sexualak nahasten dira, modu horretan kontzeptu horien interpretazioak eta balizko esanahi semantiko edo ideologikoak zabaltzeko. Lantegian zehar filmak ikusteaz gain, grabazioak egingo dira ohiko gailuekin, eta prozesuan zehar sortutako materialak editatuko dira. Proposamen pedagogiko horren bitartez hegemoniko diren narratibetatik urrundu eta nork bere burua irudikatzeko eta ikusgarri egiteko beste modu batzuen garrantzia azpimarratuko da, hau da, ohikoak ez diren lan egiteko moduak, eta estereotipo eta klixe alienatzaileekin bat ez datozen ideiak eta subjektuak.

## REC

REC es un taller teórico-práctico de 7 sesiones que toma el cine experimental como punto de partida. El taller propone alejarse de los relatos universales e idear otras formas de imaginar y visibilizar nuestra propia identidad. Se trabaja en el eje de la autorrepresentación, uno de los formatos audiovisuales en los que se entremezclan aspectos como la raza, el género y la identidad sexual para ampliar sus interpretaciones y posibles significados semánticos o ideológicos. Durante el taller se visionan películas, se realizan grabaciones con dispositivos cotidianos y se editan los materiales generados durante el proceso. A través de esta propuesta pedagógica se ponen en valor las producciones audiovisuales que no forman parte de las narrativas hegemónicas, los modos de hacer que quedan fuera de lo convencional, y las ideas y sujetos que no responden a estereotipos y clichés alienadores.



# C

## Epe-luzekoak

## Largo plazo

## Epe-luzekoak

*Eskola Aldiriak* eta *Zinema (h)abian* ibilbide luzeko programek ahalbidetu egiten dute edukiak sakon aztertzea eta harreman iraunkorrak ezartzea, horrela komunitateak aktibatzeko. Lehen kasuan, arte kolaboratiboaren bitartez egiten da, eta bigarrenean, aldiz, zinemaren bitartez, baina edozein kasutan, hainbat ikastetxerekin lan egitea planteatzen da, Tabakalerako taldearekin batera, prozesuak gara daitezen ikasturtean zehar.

## Largo plazo

Los proyectos de largo recorrido *Eskola aldiriak* y *Zinema (h)abian* permiten acceder a contenidos en profundidad y generar relaciones duraderas para activar a las comunidades. En el primer caso a través del arte colaborativo y en el segundo a través del cine, se plantea trabajar con varios centros escolares para desarrollar procesos junto al equipo de Tabakalera durante un curso escolar.

C.1.

Lantegia / Taller #

Epe-luzekoak / Largo plazo

# Eskola aldiriak / Periferias escolares

Noiz — Fechas

I 2019
Iraila
Septiembre

↓

E 2020
Ekaina
Junio

Pertsona kopurua — Nº de personas

**Ikas-komunitatearekin adostuko da.**
A definir junto con la comunidad de aprendizaje.

Ordutegia — Horario

**Ikas-komunitatearekin adostuko da.**
A definir junto con la comunidad de aprendizaje.

Tokia — Lugar

Ikastetxean eta inguruetan / El centro escolar y alrededores

Norentzat — Dirigido a

***Ikastetxeak*** (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa)

***Centros escolares*** (Primaria, Secundaria, Bachillerato y Formación Profesional)

Izen-ematea — Inscripción

***hezkuntza@tabakalera.eu***
(2020ko maiatzean / en mayo de 2020)

## Eskola aldiriak

Urtero egiten den deialdi bat da, eta xedea da arte eta hezkuntza kolaboratiboko proiektu bat garatzea eskolarekin eta haren ikaskuntza-komunitatearekin. Lan egiteko moduak birplanteatzeko aukera gisa aurkezten da, parte-hartzaile guztiei interpelatu eta eragingo dieten prozesu hezitzaileak martxan jartze aldera.

Honako proiektu hauek burutu dira orain arte:
**2014 / 15:** *Auzoko hitzak,* Aitor Ikastola, Maria Reina Eskola eta Mundaiz Ikastetxearekin, Egian (Donostia).
**2015 / 16:** *Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara,* Jakintza Ikastolarekin, Antiguon (Donostia).
**2016 / 17:** *hilHERRIbizi,* Lauaizeta ikastolarekin, Egia-Intxaurrondon (Donostia).
**2017 / 18:** *Gelditu, lasaitu eta bizi!* Arizmendi Ikastolarekin, Eskoriatzako Almen gunean.
*Harremangunea,* Txirrita Eskolarekin, Ereñotzun, Hernanin.
**2018 / 19:** *Jolastu, jolastu eta jolastu,* Samaniego Eskolarekin, Tolosan.
*Zubiak eraikiz: komunitate esparru berriak sortzen,* UPV/EHUrekin, Donostian.
**2019 / 20:** *TRANS PATIOA* izeneko proposamena landuko da, Oiartzungo Elizalde Herri eskolarekin lankidetzan.

## Periferias escolares

Es una convocatoria anual que tiene como objetivo desarrollar un proyecto colaborativo de arte y educación con la escuela y su comunidad de aprendizaje. Se presenta como una oportunidad para repensar los modos de trabajo y poner en marcha procesos educativos de largo recorrido que interpelen y afecten a todos/as los/as participantes.

Hasta ahora se han desarrollado los siguientes proyectos:
**2014 / 15:** *Auzoko hitzak,* junto a Aitor Ikastola, Maria Reina Eskola y Mundaiz Ikastetxea en Egia (Donostia).
**2015 / 16:** *Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara,* junto a Jakintza Ikastola en Antiguo (Donostia).
**2016 / 17:** *hilHERRIbizi,* junto a la Ikastola Lauaizeta en Egia-Intxaurrondo (Donostia).
**2017 / 18:** *Gelditu, lasaitu eta bizi!* junto a la Ikastola Arizmendi Almen gunea en Eskoriatza.
*Harremangunea,* junto a Txirrita Eskola en Ereñotzu, Hernani.
**2018 / 19:** *Jolastu, jolastu eta jolastu,* junto a Samaniego Eskola, Tolosa.
*Zubiak eraikiz: komunitate esparru berriak sortzen,* junto a la UPV/EHU, Donostia.
**2019 / 20:** se desarrollará la propuesta *TRANS PATIOA* seleccionada para realizar en colaboración Elizalde Herri Eskola, Oiartzun.

C.2.

Lantegia / Taller #

## Epe-luzekoak / Largo plazo

# Zinema (h)abian

Noiz — Fechas

I 2019

Iraila
Septiembre

↓

E 2020

Ekaina
Junio

Pertsona kopurua — Nº de personas

**Ikas-komunitatearekin adostuko da.**

A definir junto con la comunidad de aprendizaje.

Ordutegia — Horario

**Ikas-komunitatearekin adostuko da.**

A definir junto con la comunidad de aprendizaje.

Saio kopurua — Número de sesiones

25

Norentzat — Dirigido a

***Ikastetxeak*** (Lehen Hezkuntzako 5. maila - Batxilergoko 1. maila)
***Centros escolares*** (5º de Primaria - 1º Bachillerato)

Izen-ematea — Inscripción

***hezkuntza@tabakalera.eu***
(2020ko maiatzean / en mayo de 2020)

## Zinema (h)abian

Proiektu honen oinarrian irakasle eta zinemagileek lantegiak garatzeko egindako baterako lana dago, eta zinemarako gerturapen bat proposatzen da, arte, kultura eta sorkuntza gisa ulertuta. Ikasleak dira prozesu honetako protagonistak, eta ikasgelan integratutako lan gisa garatzen da, zeharka eta era globalizatuan. Horrez gain, sustatu egiten ditu ikasle guztiak integratzen dituzten lankidetzak, eta egoera errealak hartzen ditu abiapuntutzat, modu horretan esperientzietan oinarritutako ikaskuntza sustatzeko. Gaitasun linguistikoak eta artistikoak lantzen dira bereziki, baita ingurunearen, behaketaren eta arretaren, autonomiaren, norberaren erantzukizunaren eta erantzukizun kolektiboaren garrantzia ere, besteak beste.

Honako proiektu hauek burutu dira orain arte:
**2017 / 18:** *Taller de ficción* Oriarte Institutuko DBH-ko 1. mailako ikasle talde batekin eta Mikel Gurrea zinema-zuzendariarekin, Lasarte-Orian.
**2018 / 19:** *Taller de ficción* Oriarte Institutuko DBH-ko 4. mailako curriculum-aniztasuneko ikasle talde batekin eta Mikel Gurrea zinema-zuzendariarekin, Lasarte-Orian.
*Minutos Lumière,* Peñaflorida Institutuko DBH-ko 3. mailako ikasle talde batekin eta Maider Oleaga zinema-zuzendariarekin, Donostian.

## Zinema (h)abian

En este proyecto se parte del trabajo conjunto de docentes y cineastas en el desarrollo de los talleres y se propone un acercamiento al cine entendido como arte, cultura y creación. El alumnado es el protagonista del proceso, que se desarrolla como un trabajo integrado dentro de la dinámica del aula, de forma transversal y globalizada, fomentando trabajos cooperativos que integran a todos los/as alumnos/as y tomando como punto de partida situaciones reales para promover un aprendizaje basado en lo vivencial. Se trabajan especialmente las competencias lingüísticas y artísticas, la puesta en valor del entorno, la observación y la atención, la autonomía, la responsabilidad individual y colectiva, etc.

Hasta ahora se han desarrollado los siguientes proyectos:
**2017 / 18:** *Taller de ficción* junto a un grupo de 1º E.S.O. del Instituto Oriarte y el director de cine Mikel Gurrea, en Lasarte-Oria.
**2018 / 19:** *Taller de ficción* junto a un grupo de diversificación de 4º E.S.O. del Instituto Oriarte y el director de cine Mikel Gurrea, Lasarte-Oria.
*Minutos Lumière,* junto a un grupo de 3º E.S.O. del Instituto Peñaflorida y la directora de cine Maider Oleaga, en Donostia.


EO-05

## Eskola: ikerketa, pentsamendua eta gogoeta

Azken urteotan egindako lanaren esperientziak erakutsi digu garrantzitsuena hezkuntzari praktikatik eta gogoetatik heltzea dela. Egitea eta pentsatzea ezin dira bereizirik bizi, eta horregatik, ezinbestekoa da praktikak partekatzeko, zalantzak izateko, krisialdian jartzeko edo zalantzan jartzeko espazioak aktibatzea. Aurkeztutako objektu baten aurrean biolentziaz erreakzionatu duen ikasle bat pizgarri ona izan daiteke lantegi-saio gatazkatsu honetan taldeko solasaldi bat aktibatzeko. Beharbada, solasaldi hori berriz ere etorriko da bueltan aurrerago, gelan tentsio handiko beste egoera bat bizi denean. Kolektibo batekin lan egiten duen hezitzaile batek argazki bati buruz egindako iruzkina gure rolaren analisi kritikoa egiteko baliagarria izan daiteke. Hezitzaileek erakunde-sarean duten posizioari emandako begiratu batek nabarmen argitu dezake zein diren beren lanaren baldintza materialak.

Eskola hezkuntzako ikerketari zabalik dagoen espazio bat da, eta bertan Euskal Herriko Unibertsitatearekin dihardugu lanean (Artikertuz ikerketa-taldea), baita gure inguruko eta estatuko sareekin ere (Egia Hezitzailea, Oinherri, jardunaldietan edo estatuko beste erakunde batzuekiko harremanetan parte hartzea) eta pentsamendu-programak eskaintzen dizkiegu hezkuntzako profesionalei eta bestelako interesdunei (irakasleak, hezitzaileak, ikertzaileak, artistak...).

Oro har, gogoeta-lana barruko geruzan geratzen da, noizean behin eta neurri txikian ezagutzera ematen den arren. **2020ko urria** hezkuntzari buruzko gogoetari eskainiko diogu, Tabakaleraren eta gurekin urte luzez egon diren ikerketa- eta hezkuntza-komunitateen artean diseinatutako programa baten bitartez.

## Eskola: investigación, pensamiento y reflexión

La experiencia de trabajo de los últimos años nos enseña lo importante que resulta abordar la educación desde la práctica y desde la reflexión. El hacer y el pensar no pueden convivir separadamente, y es preciso activar espacios donde conversar, dudar, poner en crisis e interrogar las prácticas. Una sesión de taller conflictiva en la que una de las alumnas ha reaccionado violentamente ante uno de los objetos expuestos puede ser un buen detonante para activar una conversación en el equipo. Quizá esa conversación vuelva más adelante mientras se vive otra situación tensa en sala. Un comentario de una compañera a una fotografía de la educadora trabajando con un colectivo puede servir como análisis crítico del rol que ocupamos. Una mirada a la posición de las educadoras dentro del entramado institucional puede arrojar mucha luz sobre las condiciones materiales del trabajo.

Eskola es un espacio abierto a la investigación en educación en el que se recogen colaboraciones con la Universidad del País Vasco (grupo de investigación Artikertuz), trabajo en redes del contexto y nacionales (Egia Hezitzailea, Oinherri, participación en jornadas o relaciones con otras instituciones del estado), o programas de pensamiento para profesionales de la educación y otras personas interesadas (profesorado, educadores, investigadoras, artistas...).

Generalmente el trabajo más reflexivo se mantiene silenciado en una capa interna, con pequeñas y ocasionales aperturas públicas. **Octubre de 2020** será un mes dedicado a la reflexión sobre educación a través de un programa diseñado entre Tabakalera y las comunidades investigadoras y educativas que durante estos años nos han acompañado.